

Familia agurgarria:

Idazki honen bidez **HEDATZE** proiektuan **bigarren hiruhilekoan** ikasleei eskainiko dizkiegun tailer berrien inguruan informatu nahi dizuegu. Tailerrak **15:30etik 17:30era** burutuko dira.

Tailerren ezaugarriak askotarikoak direnez, ondoren zehaztuko dira tailer bakoitzaren datak, informazioa eta bestelako xehetasunak:

Tailerra	Iraupena
Japoniar idazkera eta kultura	Otsailak 2, 9, 16 eta 23. (4 saio)
Nori zuzenduta	Ikasle guztiei
Zer egingo dugu?	Japoniar idazkera (hiragana, katana, kanji) eta kultura landuko dira.

Tailerra	Iraupena
Zuk zeuk egin (II)	Martxoak 2 eta 9 (2 saio)
Nori zuzenduta	Ikasle guztiei
Zer egingo dugu?	Alde batetik, Otzaragintza tailerra egingo dugu; hau da, ikasle bakoitzak ihi-muinez otzara bat egingo du. Bestetik, kosmetiko naturalak ekoiztuko ditugu, zehatz mehatz, xaboia eta ukendua.

Tailerra	Iraupena
Futbola ikuspuntu ezberdinetatik aztertuta	Abenduak 15, urtarrilak 12, otsailak 2,9,16 eta 23 (6 saio)
Nori zuzenduta	Futbola gustuko duen institutuko edozein ikasleari.
Zer egingo dugu?	Tailer honek ikasleen artean hain kirol tipikoa den futbola ikuspuntu ezberdinetik (taktioki, psikologikoki, prebentiboki, nutrizionalki) hausnartzea dauka helburu.

Tailerra	Iraupena
Zinema tailerra	Otsailak 16 eta 23, martxoak 2, 9, 23 eta 30, eta apirilak 20. – Otsaila 2 (7 saio)
Nori zuzenduta	Ikasle guztiei
Zer egingo dugu?	Tailerren helburua zinemari, gidoiei, tramei, soinu-bandaren erabilerari, plano motei eta abarri buruzko oinarritzko nozio zinematografikoak ezagutzea da. Tailerra modu praktikoan egingo da, filmak eta film laburrak ikusiz eta aztertuz

Tailerra	Iraupena
Kosmetika naturala	Martxoak 2,9,23 eta 30, eta apirilak 20. (5 saio)
Nori zuzenduta	Ikasleei guztiei
Zer egingo dugu?	Baliabide naturalak erabiliz etxeko kremak, xaboiak etab. egingo dira. Prozedura guztia burutuko da ahal den neurrian, landarea identifikatu eta batu, mazerazioa, nahasketa... Modu praktiko batean oinarri botanikoak eta kimikoak landuko dira, eta egindako produktuak etxera eramango dituzte

Tailerra	Iraupena
Bizikleten mantenimendua	Otsailak 23, eta martxoak 2 eta 9. (3 saio)
Nori zuzenduta	DBH-ko ikasleei
Zer egingo dugu?	Bizikletaren atalak bereiztu eta haien funtsioak ezagutuko ditugu. Zela tutua nola erregulatu jakingo dugu. Bizikletako katea eta pinoien garbiketa eta lubrikazioa egiten ikasiko dugu. Balazte-kableen tentsioa nola erregulatu eta ziztada bat konpontzen jakingo dugu.

Zuen seme/alaba edozein tailerretan interesatuta badago, etxera eramango duen matrikula-orria osatu eta sinatu. Ondoren, ikasleak **tutoreari** entregatu beharko dio **abenduaren 13a baino lehen (asteartena)**.

Adeitasunez,

Zabalgana BHI